

# PORROTAREN AUTOPSIA

Hillary Clintonek akatsak aitortzen ditu baina porrotaren errua besteei egotzi die

 POLITIKA / Mikel Zubimendi


Inork gutxik espero eta mundu osoa asaldatu zuen porrotetik hamar hilabetetara, Hillary Rodham Clinton bueltan da. «What Happened» memoria liburuarekin datorkigu, bere porrot epikoaren arrazoiak aztertu eta errudunak seinalatuz. Bera ezik, beste guztiak, «kontrolatu ezin nituen kanpoko indarrak», egiten ditu errudun.

**D**onald Trump ekarri eta mundua dardarka utzi zuen “Titanic”-aren pareko hondamendia, porrot epiko hura, gertatu zenetik urtea ere joan ez denean, Hillary Rodham Clinton hautagai garaitua bueltan da. Hogeita bost urte begi publikoa-

ren bistan aritutako figurak (aurrenik lehen dama, gero senatarri, Estatu Idazkari eta birritan presidentegai), nonbait, ezin du antzetzoki politikoa bat-batean utzi. Bere 70 urteekin betiko desgertua eta erretreta politikoan nahi zutenentzat mezua ere badakar: «Hemen nago!». AEBetako historian izan den kanpaina

Errukirik gabeko patriarka baten aurrean «ezker eta eskuineko gizonen konspirazio batek lagunduta» galdu ostean, bere porrota AEBetako politikaren gainbeheraren erakuslea dela dio Hillary Clintonek.  
Matthew CAVANAUGH | EFE

latz bezain gogoangarriaren ondoren bere porrot itzelaz hausnartzera dator Clinton anderea. Bera baino askoz ere inpopularragoa, askorentzat bufoi bat eta munduko agintari boteretsuena bilakatzeko ezgaia zen Trumpen aurrean galdu zuen. Queens-eko demagogoak, higiezinaren magnate eta telebistako *reality*-en izarrak, pronostiko guztien kontra, irabazi egin zion. "What Happened" du grazia Hillary Clintonek argitaratu berri duen memoria liburuak. *Post-mortem* azterketa bat da, bere hitzetan, «ariketa katartikoa» eta dagoeneko Amazonen *best-seller* izatea lortu du. Botoa eman zioten 65 milioi pertsonentzat, agian, izango da kontsolamendua, asko eta asko horren beharrean baitaude, bai. Edonola ere, ironia ez da falta: hondamendi horrekin diru asko egingo duelako Clintonek, pentsa, ilaran egon eta sinadura lort-




tzeko aukerak mila eta bos-tehun dolar balio ditu. Bere alderdikide demokratek izuz beterik hartu dute liburua, iraganari begira lotuta kokatzen dituelako eta ez geroari so, egoerari buelta emateko perspektiban.

AEBetako kulturen ez da galtzaileekiko begirunerik izaten. Berdin dio boto kopuruan nola geratu den, arau tranpatien inguruko eztabaida eta garailearen itsuskeria. Galtzailea galtzailea da eta kondena horren zama eramango du betiko. Izan ere, hainbeste abantaila zituen Clintonek! Hain nabariak ziren bere abantaila konpetitiboak! Diru gehiago zuen, iragarki, esperientzia gehiago, eliteen artean kontaktu gehiago (hala nola, orduko presidente Barack Obamarekin)... eta halere, apustu guztien aurka, galdu egin zuen.

#### AKATSAK BAI, ERRUA EZ

Egia da XVIII. mendeko anakronismo batengatik eta AEBetako sortzaileek herri demokrazia zuzenarekiko zuten nolabaiteko mesfidantzagatik izan ez balitz Clinton presidentea izango zela. Egia da, halaber, gakoak izan ziren Pennsylvania, Ohio edo Wisconsin bezalako estatuetan 67.000 boto gehiago lortu izan balitu, bera izango zela Etxe Zuriaren maizterra. Egia da, berak dioen bezala, «AEBetako historian gizon txuri batek» sekula eskuratu ez duen boto kopurua lortu zuela. Baina atzera-bueltarik ez dago: inork gutxik aurreikusten zuen lehia galdu egin zuen, nahiz eta ia hiru milioi boto gehiago lortu. Eta AEBetako historian ez da paradoxa horren lehen biktima, herritarren botoetan irabazi eta hauteskundeak galdu zituen bosgarren presidentegaia delako.

“What Happened” gainetik begiratzuz, oro har, zera azpimarratu daiteke: Clintonek akatsak aitortzen ditu, batzuk txikiagoak –gehienak– eta besteak handiagoak. Beste aitorten batzuen artean honakoak aipatzen ditu: «Ez nintzen ohartu, ez nuen barneratu nire oinpetan lurra zein azkar mugitzen ari zen», «ez nuen asmatu Trumpen ‘America First’ mezuari aurre egiten», «ez



Bere 70 urteekin erretreta politikoa betiko desagertua nahi dutenentzat mezua ere badakar liburua: «Hemen nago!». Drew ANGERER | AFP

nuen figura eraldatzaile, iraultzaile gisa ni ikustea lortu», «nire egiazkotasuna zalantzan jarri zen». Oso sonatua izan zen, adibidez, Clintonek kanpainan Trumpen boto-emeleak «negargarri kuadrilla» bat zirela esatea. Aitortzen al du hori akatsa izan zela? Ez. Badirudi logika ezagun bat darabilela, hots, oker zabiltzanean ez dela sekula barkamenik eskatu behar, gogorrago eraso egin behar dela baizik.

Hala egiten du Clintonek. Benetako egia da Trump eta bere aldeko taldeek, bereziki sare sozialetan, Clintonez direnak eta bost esan zituztela: ahula, gaitxo, kriminala, fisikoki okaztagarria, «antikristoa» eta mitinetan, jendetzak «kartzelara! kartzelara!» kantatzen ziola.

Liburuan aipatzen dituenen arabera, Trump erabat heldugabea da, bere bulkaden gaineko kontrolik gabea, daukan ardurarako ezgai hutsa, erreaktiboa dela dio eta ez proaktiboa, pentsamendu estrategikorik gabea, zer egingo duen jakiterik ez dagoe-la, hitz batean, arriskutsua, oso arriskutsua dela. Estatu Idazkari gisa AEBetako kanpo politikaren

ardura izan zuen Clintonentzat, Trumpek diplomazia jeneralen esku utzi du, eta hori barkaezina omen da.

Baina ez du jakin diskurtso koherente batean artikulatzen zergatik nahi zuen presidente izan; zer dela eta zegoen hain seguru bere garaipenarekin eta konfiantza horrek itsututa, zergatik ez zuen mezu positibo bat zabaltzen asmatu. Nola egin zuen hain kanpaina kaotikoa, helburu noble baten zerbitzura nola ez zuen jartzen jakin edo boto-emeleekin benetako kontaktu zuzena zergatik ez zuen bilatu.

**Clintonek Trumpen boto-emeleak «negargarri kuadrilla» bat zirela esatea akatsa izan zela aitortzen du? Ez. Oker denean sekula ez du barkamenik eskatzen, gogorrago erasotzen du**

**«Kontrolatu ezin nituen kanpoko indarra izan da errua». Eta guztien buru, Errusia, Errusia zitala. Clintonek ez du zalantzarik: «Putinek sabotatu zuen nire kanpaina»**

Galdetzekoa da ez ote zezakeen beste mota bateko liburu bat idatzi. Galera horren lezioak bildu eta maite duen kausa politikoaren onurarako zein izan zitekeen aurrerabidea seinalatuz. Seguruenik ez litzateke *best-seller* bat izango, baina politikoki erabilgarriagoa zatekeen. Gauzak horrela, iradoki edo jakitera ematen du egoa eta dirua, antzetzoki publikotik aldentzeko ezina izan dituela hauspoa.

#### ERRUSIA ZITALAREN ESKUA

Hillary Clintonek ez du inor errua egoztetik libre uzten. Denek dute erruaren beren partea,

berak ez ezik beste guztiek. Eta errudunak ozen salatzen ditu: «Kontrolatu ezin nituen kanpoko indarra izan da errua». Eta horien artean, guztien buru, Errusia, Errusia zitala.

Salaketa zorrotz eta zehatzak egiten ditu eta, nola edo hala, denek dute Errusiarekin lotura bat. Horrela, Julian Assangek zuzentzen duen Wikileaks taldeak, bere webgunean Alderdi Demokrataren Nazio Komitearen eta Clintonen kanpainaren buru John Podestaren milaka email argitaratu zituenak, errusiarren eskutik jaso zituen informazio horiek. Latzak esaten ditu Londreseko Ekuadorreko enbaxadan errefuxiatuta dagoen australiarren inguruan: «Assange hipokrita bat da eta egindakoa-gatik kontuak ematea merezi du. Gardentasunaren zaindartzat du bere burua, baina urteetan zehar munduan autokrata errepresiboenetarikoa den eta gardentasun gutxienetarikoa duen Putinen meza-mutila, laguntzailea izan da».

Clintonek ez du zalantzarik: «Putinek sabotatu zuen nire kanpaina». Nola? Ironikoki,



Clintonek Sandersen kanpaina nola sabotatu zuen erakusten zuten dokumentuak Wikileaksi filtratuz. Assangek informazio hori errusiarrek eman ziotela beti ukatu duen arren, eta, are, Obamaren Inteligentzia zerbitzuen buruek horren baieztape-nik sekula egin ez zuten arren, Clintonentzat berdin da: «Assange agente errusiar bat da, erdi nihilista, erdi anarkista, oportunistak hutsa, susmoa dut Moskuren soldatapeko dela, eta dudarik ez dut, Putinen ‘autoritarismo matxoak’ liluratuta dago».

Vladimir Putin zuzenean apuntatzen du, eta salaketa oso larriak aurreratzen ditu. «Gerrarako eremu berri bat» ezarri duela dio, hain zuzen, «errusiarrak gure hauteskundearen sistemaren bihotzean sartzea lortu dutelako». Gerra egiteko dimentsio berri horretan, informazioa arma gisa erabiltzen dela defendatzen du, eta hatz erakuslea Kremlinek kontrolatutako “Russia Today” eta “Sputnik” bezalako plataforma mediatikoei zuzentzen die. Oso kezkatua ageri da eta gerra egiteko eremu berri

hau serio hartu eta defentsa neurriak urgentziaz ezarri behar direla dio, erreminduta, «azpijoko horren irismenaz» AEBak ez direla ohartu salatuz.

**EZTENKADAK DENENTZAT**

Clintonen hitzetan, bere galera epikoaren beste kausa handi bat «politika tribalak» deitu dituenak dira, hots, arrazismoaren, sexismoaren eta atsekabe ekonomikoaren arteko nahasketaren erabilera lotsagabea.

Errusiarrekin ez ezik, beste pertsonaia batzuekin ere Clintonen kontuak egitea nahi ditu. Horien artean, bereziki aipagarria da James Comey, hauteskunde garaian FBIko buru izan zena. Bere porrotaren inguruan pentsatzean, Clintonen ez du ahazten hauteskunde egunaren aurretik, hamaika egun lehenago, Comey eman zuen prentsaurrekoa, non beraren kontra ikerketa berri bat abiatu zuela informatu zuen. Oso haserre ageri da FBIko buru ohiarekin, oso bereziki Trumpen eta Errusiarren arteko loturen inguruan beste ikerketa batzuk martxan zeudelako eta horien berri ez

zuelako eman, eta Clintoni sekulako labankada emateko errepakorik erakutsi ez zuelako. Damu dela aitortzen du Clintonen, bere momentuan Comeyri lepora salto egin eta kontraerasora pasatu ez zelako.

Alderdi Demokratako primarioetan bere aurkari izan zen Bernie Sandersekin etsita ageri da. Berarentzat «Sanders ez da demokrata» bat eta 2008. urtean berak Obamarekin egin zuen bezala ez jokatu izana aurpegiratzen dio: «beranduegi erretiratu zen lasterketatik», Clintonen izendapena lortu zuenetik hilabete pasatxora hain zuzen.

**Bernie Sandersekin etsita ageri da: «Ez da demokrata», «berandu erretiratu zen lehiatik», «primarioetan nire integritatea zalantzan jarri eta horrela Trumpi munizioa eman zion»**

**«Obamak zera ziotan: ‘Sandersi ez iezaiozu egurrik sartu!’, ‘bere boto-emaileak ez itzazu alienatu!’, eta horrek, politikoki, alkandora hertsigarria eramaten nuela sentiarazi zidan»**

Porrotaren lezioak bildu eta bere kausaren onurarako aurrerabideak zein izan zitezkeen seinalatuz egin zezakeen beste mota batetako liburu bat, baina, seguruenik, ez litzateke «best-seller» bat izango. Drew ANGERER | AFP

Are, Sandersen «politika utopikoegiak» salatzen ditu. «Ez dio lege bilakatzeko bokazioa duen politikari jaramonik egiten. Masha mugimendu bat sortzea eta Alderdi Demokrataren printzipio eta balioen inguruko eztabaida soziala piztuta mantentzea interesatzen zitzaion bakarrik». Beste hitz batzuetan esanda, promesa handiak eta gauzape txikiak egotzen dizkio. Eta eztenkada ez dio barkatzen: «Primarioetan nire integritatea zalantzan jarri zuen eta hori Trumpentzat munizioa izan zen».

Obamak animatu omen zuen Clinton presidentetzarako lehia- ra aurkezteko. Dioenez, Obama ez zegoen berrautaketaz batere ziur eta bazekien bere ondare politikoaren biziraupena, hein handi batean, Clintonen garai-penean zetzala. «Sandersi ez iezaiozu egurrik eman!», «bere boto-emaileak ez itzazu alienatu!» esaten omen zion behin eta berriz, eta horrek, politikoki, alkandora hertsigarria eramatea suposatuz ziola uste du.

**SEXISMOAREN BOTEREAZ**

Bere buruari zera galdetzen dio Clintonen: boto-emaileen erdiak emakumeak izanik, zergatik suposatzen du generoak arraza baino hesi handiagoa AEBetako hauteskundeetan? Orrialde askotan aritzen da Clintonen sexismoak eta misoginiak bere porrotean izan zuen garrantziaren inguruan. «Zergatik ikusten naute hain pertsona zatikatzaile eta polarizatzailea, eta, esaterako, Joe Biden edo John Kerry ez? Zergatik hainbeste gorroto nire aurka? Galduta segitzen dut».

Berak argi dauka: zenbat eta arrakasta handiagoa lortu gizon batek, orduan eta sozialki maitagarriagoa da; zenbat eta arrakastatsua bihurtu emakumea, orduan eta gutxiago maitatzen da. Ekuazioa hau litzateke: Clinton dinastiaren historiari gehitu sexismoa eta misoginia, berdin, porrota. Ozen salatzen du: sexismoak eta misoginiak paper bat jokatu zuten emaitzetan eta ondorioa logikoa da: sexista nabarmen bat da egun AEBetako presidentea.